

ERREKA EGALA

B6



Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (toponimoa):

Kanalizatutako erreka zatiaren ertzak eta alboak.

Muga geografikoak

“Idiga” edifiziotik Foru eta Muruetarainoko oinezkoentzako ibilbidea.

Ezaugarri historikoak

Errekearen kanalizazioa urteetan izan zan gernikarren eta lumotarren asmoa. Azkenean, 1903ko irailaren 28an hasi ziran kanalizazio lanok sei urte luze iraun eben. Gernika eta Murueta arteko zatiari egokozanak subastau ziran lehenengo. Ekitaldi bitan egin ziran: uritik Atxagaseraino lehenengo eta handik Muruetaraino bigarren

fasean. Proiektu haren arabera, Errenteriako zubian 60 metroko kaia egiteko asmoa egoan, bertan gabarra edo tona gitxiko itsasontziek euren lekua izan egien.

Azkenean “Canal de la Ria de Mundaca-Guernica” deitzen jakona ez zan amaitu guztiz pentsau zan moduan eta inaugurazio ofizial barik geratu zan. Lanek 1903tik 1923ra arte iraun eben eta Aldape-Errenteriatik Muruetako oruberainoko zatia baino ez zan akabau. Halanda ze, ez egoan Mundakaraino heltzerik.

Ibilbide barria, berezkoa barik, artifiziala zanez, “Erreka Egala” edo “Corte de la Ría” deitzen jako harrezkero. Kanalizazioaren ostean, erreka zaharraren meandro sistema osoa aldatu zan eta ibilgua apurka-apurka lurrez beteten joian. Azken uriolen ondoren, Idiga eta Urbietako kirol gunearen (futbol eta rugby zelaiak, frontoiak) arteko meandro horreetako bat errekeruau egin da.



B5

ERREKAZARRA KALEA

C5



Izenaren jatorria

Antxinako errekea. Erreka zaharrak jarraitzen eban ibilgua.

Muga geografikoak

Ekialdetik Uharte kalea dauka eta mendebaldetik Zubialde kalea.

Ezaugarri historikoak

Kale honen historia aztertueran errekearen kanalizazioa ekarri behar dogu gogora, izan be, kalea bera kanalizazioaren eta ondorengo urbanizazioaren ondorioa da. Errekea bideratu aurretik, bere ibilgua Idurgo fabrikearen atzealdetik joian, gaurko Urrengoerota kaleraino. Handik abiatuta, eta gaurko Errekazarra kaletik jarraituta, Errenteriako zubiraino ailegetan zan.

Errekea kanalizetako asmoa antxinako kontua da. Erdi Aroan daborduko, agirian egoan Bermeoko kostaldetik Gernika eta Ajangizko portuetarainoko nabigazioa arazotsua zala. Urteetan errekeak eta ibaiadarrek ekarritako sedimentuek errekearen sakonerea gitxitu eta ibilgua lurrez betekeran arazoa handitu egin zan.

1494an Errege Katolikoek ikerketa bat agindu eben itsasadarrean “korte” bat egiteko, errekeak eukazan bihurguneek (meandroek) nabigazioari enbarazu egiten eutsien-eta. Harrezkero, hainbat proiektu izan ziran ezerezean geratu ziranak eta beti arrazoi berberakaitik: ibilguan egoan sedimentazioa eta Ajangizko eta Gernikako portuetaraino errekek eukan emari txikia. Urteetan eginiko proiektu guztietan helburu bi ziran beti nagusi: batetik, aitatutako portuetatik abiatzen eta bertara heltzen ziran itsasontzientzako nabigazioa erraztu; eta bestetik, bertako biztanleen kalterako ziran eta sarritan uztak galdu eragiten eutseezan uriolak saihestu.

Hainbatetan proiektutako zorioneko kanalizazio-lanak 1903an hasi eta 1923an amaitu ziran. 4.500 metroko kanal zuzena egin zan Errenteriako zubitik Muruetako orube puntaraino. Artean berba hutsak ziranak gauzatu eitezan behar zan azken bultzakada, Manuel Allendesalazarrek, Luis de Landeok eta Juan Tomas Gandariasek emon eutsien, proiektua Jose Lequericaren esku itxita. Laster hasi ziran beharrak. Horretarako, eskabadore eta draga handiak erabili ebezan; itxurea eta tamainuagaitik “karramarro” deitzen eutsien herritarrek eskabadoreari.

Baina urteak joan, urteak etorri, Gernika eta Mundaka arteko kanala ez zan inoiz guztiz burutu eta Muruetaraino baino ez zan heldu. Kanalizazio-lanak lardakeriaz, ustelkeriaz eta itzelezko diru-galtzeakaz nahastau ziran. Zoritxarrez ez zan izan ustelkeria-sare handi hau argitzeko eta ikertzeko modurik, izan be, sute batek erre ebazan Lan batzordeak bere egoitzan eukazan fakturak eta dokumentazio guztia.



B3



Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa):

Gernikarra jaiotzaz, Alkalako Unibertsidadean egin ebazan medikuntza ikasketak. 1554an erregearen zerbitzupuan zirujaua izan zan eta militarren mediku moduan Europa osoan zehar ibili zan. Zabala torretxearen jaubea izan zan Gernikan, eta San Juan eleizea egoanean, hiru kaperatxoetako bat berarena zan. Madrilen hil zan 1574ko garagarriaren 16an.

Muga geografikoak

Ekialdetik Juan Calzada eta mendebaldetik Agirregana auzunea ditu mugak.

Edifizio aitagarriak

Bustergiñena baserria. Herritarrek "piñu" deitzen eutsien baserri honi eta gaur egun Juan Calzada kalean dagoan iturriari hortik jatorko izena.



B5



Izenaren jatorria

Izenaren etimologia (patronimikoa):

Fernando Abaunza Santiago (Gernika-Lumo 1924-1976), metalurgikoa lanbidez, gizon apala izan zan eta bere egintza onakaitik lortu eban auzokideen miresmena. Kultura eta arlo sozialean ekimen handiak egin ebazan, JOC eta HOAC erakundeetako partaide zala. "Aizerrota" arte taldearen eta "Arte Eskolaren" sortzaile, "Cooperativa de Consumo Guerni-quesa" ren bultzatzailetariko bat eta "Brisas Guerniquesas" aldizkariaren kolaboratzaile izan zan. Marrazketa eskolak emon ebazan sortu barria izan zan ikastolan, lehenengo urte latz hareetan. Santa Mari-nako klinikan tuberkulosiak hartuta egozan Gernikako

gaixoak bisitetako ohiturea be baeukan. Lan guztiak doan eta irabaziasmo barik egin ebazan. Hamar seme-alabaren aita, kultura, artea, pintura eta musika zaletasuna irakatsi eutsen guztiei. Batez be gizon zintzoa eta bihotz onekoa izan zan.

Muga geografikoak

Kale hau 1970ean eratu zan. Ekialdean Domingo Bernaola kalea dauka eta mendebaldean San Juan.

Edifizio aitagarriak

Euskadiko Kutxaren Arte Aretoa: Fernando Abaunza beraren ekimenez sortutako areto honetan, artista gernikar guztiek euki dabe euren txokoa.